

ERASMUS PROGRAMA ENSCHEDE

Oier García Mere

Kaixo, nik Erasmus+ programa egin nuen Holandako hiri batean, Enschede deiturikoa. Lehenengo kuartian burutu nuen, abuztu amaieran joan nintzen eta urtarila amaieran buelta.

Nire kasuan abuztuan joan nintzen Amsterdamera joango nintzelako hegazkinez, eta unibertsitateak berak bi egunetan autobus zuzena jartzen zuen resiraino, horrela ez nintzen bestenolako trenaz edo busez hartzeaz. Gomendatzen dut resia hartzea pisua baino, lagun gehiago egiten dira eta oso erraz, guztiz bakarrik joan nintzen eta lehen egunetik nituen lagunak, gainera badaude Erasmuseko whatsapp taldeak zure hiriko jendea ezagutzeko.

Bi resi daude, Ariensplein edo Macandra; Saxion unibertsitatara joatekotan, normalean Ariensplein da bizitzeko tokia, baino nahiz eta Twenteko unibertsitatara joan, kalitate nahiko hobea du Arienspleineko resia.

Hiri lasaia da, ez baita oso handia. Behin ohituta zaudenean bizikleta bat hartzea gomendatzen dut; nire kasuan bat erosi nuen, Wallapop moduko aplikazio batetik, Marktplaats du izena. Beste aukera da alokatzea, Swapfiets enpresan.

Zentroko enparantzan taberna eta jatetxe ugari daude, baita denda ugari ere. Festaz ateratzeko seguruenik toki hoberena Aspen Valley taberna da, ostegunetan garagardoa 1€-tan dago gainera. Bestela Friends taberna, karaokea edo Irish Pub beste aukerak dira.

Hiritik gertu laku bat dago, Rutbeek du izena. Bizikletaz joan daiteke edo bestela alokatzen diren motorretan. Holandan barbakoak egin daitezke ia edonon, eta aldi baterako barbakoak saltzen dituzte supermerkatuetan; karboia, pastillak eta parrilla dakarren kit bat da, dena prest barbakoa zuzenean egiteko. Eguraldi ona egiten duenean bertan eguna pasatzea gomendatzen dut.

Aktibitate asko egin eta plan guztietara apuntatu, denbora pentsa baino azkarrago pasatzen da eta gauza aunitz daude egiteko bertan.

Oso esperientzia ona izan nuen eta zalantza barik errepikatuko nuke, espero lagungarria izatea kontatu dudana, gauza pila daude esateko baina ustez garrantzitsuena laburtu dudala.

Behar izanez gero unibertsitateko informazioan agertzen den kontaktu korreoa edo zenbakia eman daiteke norbait galderak izanez gero.